



E. Gonzalez



Eguzkiaren eta Lurraren arteko distantzia dela eta, argiak hori betetzeko zortzi minutu behar ditu. Beraz, argia bapatean etorriko balitz Eguzkiaren irteera zortzi minutu lehenago ikusi beharko genuke, hau da, bostak eta berrogeita hamabian puntu-puntuan. Ados al zaude?

Ba, ez. Emaitza hori guztiz oker dago. Hori gertatuko balitz ere, seietan ikusiko genuke Eguzkiaren "irteera". Baina, hori nola liteke? Oso erraza. Eguzkiaren "irteera" ez da irteera, Lurraren esferaren birari dagokio eta aldeztatik argituta zegoen espazio batera Lurra sartzea baino ez da esandako "irteera" hori. Beraz, argiaren abiadura bat ala bestea izan, kasu honetan beti Eguzkia seietan ikusiko genuke.

Beste gauza bat da behatokitik Eguzkiaren gainazalean leherketa bat edo teleskopioaren bitartez ikusten dutenean. Orduan bai, ikusitakoaren eta gertatutakoaren artean dagoen epea esandako zortzi minutuko hori da, baina hori ez zen gure galdera. ➤

SEXU-HEZKUNTZA

Sexu-hezkuntzarako baliabide berri eta baliotsua. Nola jaiotzen dira haurrak? Nola sortzen dira? Pubertaroan zer gertatzen da? Aurkezten dugun Sexu-hezkuntza programak, erantzun garbi eta egokiak ematen dizkie gure garapeneko uneren batean kezkatu gaituzten galderari.



Programa honek norberaren gorputza eta sexualitatea hobeto ezagutzeko balio dezake, horrela garapen egoki eta orekatuari lagunduz. Baliabide malgua da eta adin guztietan helburu desberdinez erabil daiteke.

Eskaerak eta informazioa:

Elhuyar Kultur Elkarte

Asteasuain poligonoa. 14. pabilioia

Tel. (943) 363040/363041

20170 Usurbil (Gipuzkoa)